

Dinamika bat baino jarrera bat gara, gure etorkizunaren aurrean herritarrok hartzen dugun jarrera. Etorkizuna gure esku dagoela esatera datorren herritarren jarrera.

Hitzez ezin dugu laburtu azken urtean batean eta bestean egin duguna, norberaren eta parekoaren irribarretan neurtu liteke, sortu diren konfiantza horietan, saretu garen herritarron borondateetan, bataren eta bestearen artean eraiki ditugun zubietan.

**Zer garen eztabaidatzeari utzi eta zer izan nahi dugun erabakitzeari ekin** nahi diogu eta horretarako denak, herritar den-denak behar ditugu, normalena hori baita, erabakitzea. Zein da erabaki hori gauzagarri bihurtzen duen oinarria?

**Zilegitasun demokratikoa.** Pertsona adina arrazoi ditugu erabakitzea dagokigun eskubide bat dela esateko, erabaki hori, edozein delarik ere, gauzagarri egingo duen oinarria eraikitzea dagokigu, ordea. Demokrazia da oinarri hori. Herri honek 3.000.000 herritar baldin baditu, herritar horien legitimitatea, zilegitasun hori da erabakia gauzagarri bihurtzen duena. Herritarron gehiengoak determinazioz erabakia zilegi bihurtzen badugu, erabaki hori gauzatu egingo da.

Esanak ekintza bihur daitezen ilusioak jarrera bihurtu behar ditugu eta jarrerak erabakimen. 2014ko ekainaren 8an eskutik elkarri heldu diogun herritarrak gara Durango eta Iruñea artean ilusio berri bat piztu denaren lekuko. Hona, ordea, banan bana eta ahoz aho egindako lanak ekarri gaitu. Herritarron arteko sare hau kimu bat da, gaurko aldarria biharko erabaki bihurtuko duen lorearen kimu.

Gaur elkarri heldu dioten eskuek bihar erabaki dezaten, abiatutako bide honetan jarraitzea dagokigu. Konfiantza eta elkarlana gure auzo eta herri bakoitzeko txoko orora behar dugu hedatu. Hori baita bihar hartuko dugun erabakia zilegi egingo duena, horrek bihurtuko baitu zilegi dena errealitate.

Herri bat gara, erabakitzeko eskubidea dugu, herritarron garaia da. Gure eskubidea da eta bidea **GURE ESKU DAGO! Gora jende zoriotsua! Gora herri libre!**